

Industriako emakume langileen pasealekua

Industriako lana gizonen eremua zela uste bada ere, emakumeek industrian lan eskerga egin dute. 1939 eta 1975 urteen artean Euskal Herrian zein Hernanin, sekulako industria garapena gertatu zen eta horrek, etorkin askoren etorrerarekin batera, emakumeen lan munduratzeari eragin zuen. Finean, industriak eskulan merkea behar zuen, eta hutsune hori betetzeko emakumeak kontratatu ziren.

Sexuan oinarritutako lan banaketa argia zen eta emakumeek prestigio gutxiko eta kualifikatu gabeko lanak egiten zituzten. Bereziki joskintza tailerretan eta paper fabriketan aritzen ziren lanean. Horren truke, gainera, soldata baxuagoak jasotzen zituzten eta lan-baldintza kaskarragoak. Emakumeek ikasteko eskubiderik ere ez zuten, ez zuten garapen profesionalerako aukerarik izaten.

Iruditeriak emakumea sexu ahultzat jo badu ere, erruz eta gogor lan egin dute emakumeek historian zehar, 10 edota 12 urterekin hasi eta hezurrek ahal zuten arte egiten zuten lan. 1936ko gerra osteko urte haietan eskasia eta gosea oso presente zegoen Hernanin eta, beraz, hari aurre egiteko umetan hasten ziren emakumeak lanean, eskola albo batera utziz.

Fabriketako lanaz gainera, etxean ere jarraitzen zuen lanak, izan ere, hamabi lanorduko lanaldiekin ere zaila zen aurrera egitea beharra nagusi zen testuinguru hartan. Sos gehiago ateratzeko bidea zen, adibidez, zelofan poltsak etxean ekoiztea. Esku-lanak emakumeen lanak kontsideratzen ziren eta, lan eskubiderik gabe, beltzean eta produkzioaren arabera ordaindua zen lan hori. Hernaniko emakume asko eta asko aritu da lan horretan, bereziki ezkonduetakoak, izan ere, horiek ez zituzten fabriketan onartzen.

Lana, lana eta lana; eta etxera iritsitakoan ere, etxeko lanak eta familiako kideen zaintza zuten zain, izan ere, hori baitzen emakumeen betebeharra.

Frankismoaren akaberan, langile klasea, oro har, eta emakumeak zehazki, antolatzen eta borrokatzen hasi ziren eta egun lortutako eskubideen oinarrian daude orduko borroka haiek. Hasieran, Frankismoaren baitako “Sindicato Vertical” taldean antolatzen hasi ziren, baina gero, emakumeen artean antolatzeari ekin zioten, lantegi eta gremioen artean, klase gisa, diskriminazioa talde modura sufritzen zuten, erantzuna ere kolektiboa izan zedin. Emakumeek euren zapalkuntzaz jabetu eta eskubide berdintasuna aldarrikatzen hasi ziren garai horretan. Langileen arteko batasuna eta elkartasuna izugarria zen eta erresistentzia kutxen bidez luzeak izan ziren orduko greba mugagabeak.

Bereziki esanguratsua izan zen Hernaniko Papelera de Zicuñaga S.A. lantegiko emakumeek, soldata jaitsi zitelako eta baldintza duinak eskatuz, 1967an abiatutako greba.